

Enpresa-sarea garatzeko sektore estrategiko batean lider digitalaren aldeko apustua

## Indar Karterak, BBK Banku Fundazioak, Eusko Jaurlaritzak, Vital Fundazioak eta Tekneik osatutako partzuergoak Ayesa Digitalen erosketa itxi du

- Europako zerbitzu digitalen hornitzaile nagusien artean konpainia sendotzen lagunduko dute
- Enplegurako aukerak sortzea babesten dute eta konpainiaren lan-eremu diren merkatu nagusiekiko konpromisoari eusten diote
- Ayesa Digitalek Iñigo Ucín sartu du presidente ez-exekutibo gisa, Manuel Baraza konpainiaren CEO bihurtu ondoren

Donostia, 2026ko martxoaren 31.- Indar Karterak (Kutxabanken tresna inbertitzailea), BBK banku-fundazioak, Eusko Jaurlaritzak (Finkatuz, Finantzen Euskal Institutuaren inbertsio-tresnaren bidez), Vital Fundazioak eta Tekneik osatzen duten partzuergoak Ayesa Digitalen erosketa itxi du gaur, agintariek onespena eman ondoren. Eragiketaren guztizko balioa 480 milioi eurokoa da, 2025eko abenduan iragarri bezala.

Eragiketa hazkunde-fase berri baten hasiera da, Ayesa Digital Europako zerbitzu digitalen hornitzaile nagusietako bat izan dadin; baita hazkunde handiko sektore estrategiko baten –irtenbide digital aurreratuenaren– aldeko apustu irmoa ere, enpresa-ehunaren eraldaketan, garapenean eta lehiakortasunean funtsezkoa baita.

Partzuergoak eskaintzen duen akzio-egonkortasunak konpainiaren plan estrategikoa garatzen lagunduko du, helburutzat dituelarik enpresa eta erakundeentzako zorroaren eta zerbitzuen hazkundera, bezeroei kalitatezko zerbitzua bermatzea, hornitzaile-sareari egonkortasuna eskaintzea eta ildo estrategiko nagusietan gaitasunak garatzea, adimen artifiziala, zibersegurtasuna, prozesuen automatizazioa, datuen kudeaketa eta konputazio kuantikoa barne direla.

Bere babesarekin, gainera, talentuarentzako aukera berriak sortu eta eskala aprobeztatu nahi du. 11.000 profesional baino gehiagorekin eta estatuko eta nazioarteko sare sendotuarekin, Ayesa Digitalek apustu egingo du kualifikazio handiko talentua erakartzearen, balio teknologikoaren katea indartzearen eta ekosistema teknologikoarekin sinergiak sortzearen alde, industria-ehuna indartzeko eta ekonomian eragin positiboa sortzeko helburuarekin.

### Zuzendaritza-taldea babestea, bere CEO eta presidente berria buru dela

Azken hamarkadetan, Ayesa Digitaleko lantaldeak bezeroarekiko hurbiltasunean eta kalitate handiko zerbitzuan oinarritutako lan- eta lankidetzadynamikak garatu ditu, eta balio bereizgarri hori azpimarratuko da etapa berri honetan.

Hazkunde- eta hedapen-testuinguru horretan, partzuergoak babesa eman dio zuzendaritza-taldeari, eta konpainiaren lan-eremu diren merkatu nagusiekiko konpromisoa ere agertu du. Era berean, ikuspegi estrategiko hori indartzea erabaki du, Iñigo Ucín –industria arloan ezagutza eta eskarmentu handia duena– Ayesa Digitaleko presidente ez-exekutibo gisa sartuz, eta orain arte Eragiketa-zuzendaria izan den Manuel Barazari zuzendaritza exekutiboa emanez, konpainiako CEO gisa.

Iñigo Ucinék azpimarratu duenez Ayesa Digitalekoa “ilusioa sortzen duen proiektua da, eta unea ere egokia da. Aldaketa eta teknologia berri asko datozte eta azkar kokatu beharra dago. Testuinguru horretan, Ayesa Digitalen zeregina funtsezkoa izan daiteke. Proiektu berri hau abiarazteko euskarria ere oso garrantzitsua da, bazkide guztiok batera jokatzea, hain zuzen ere”.

Bestalde, Manuel Barazak adierazi du “haztea da hain zorrotza eta estrategikoa den merkatuan lehiatzeko era bakarra. Eragiketa hau beste etapa baten hasiera da, Ayesa Digital lider handi gisa finkatzeko hazkunde-fase berri baten hasiera. Partzuergoaren akzio-egonkortasunak gure plan estrategikoa garatzen eta gure bezeroentzako balioa handitzen lagunduko du. Pozarren nago Iñigo Kontseiluko presidentea izango delako, ez bakarrik bere eskarmentuagatik eta ezagutzagatik, baita bere sentsibilitateagatik eta kulturagatik ere pertsonak osagairik garrantzitsuena diren erakundeetan”.

Iñigo Ucinnek esperientzia handia du industriaren eta kudeaketaren arloan, Mondragon Korporazioko Kontseilu Nagusiko lehendakari, Mondragon Korporazioko presidenteorde (Automatizazio Industrialaren eta Makina Erremintaren dibisioan) eta Danobateko zuzendari nagusi izan baita, besteak beste. Mondragon Unibertsitateko Kontseilu Errektoreko lehendakaria ere izan zen. Deustuko Unibertsitatean Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua, Berrikuntzaren Kudeaketan masterra ere egin zuen unibertsitate berean.

Manuel Barazaren ibilbide profesionalak hiru hamarkada baino gehiagoko eskarmentua du IT negozioan, batez ere Ibermátican eta Ayesa Digitalen.

Bi zuzendariak Ayesa Digitek etapa berri honetan egingo duen lehen Administrazio Kontseiluan (apirilaren erdialderako dago aurreikusita) berretsiko dira.